

## **2025EKO OTSAILAREN 11N UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta berrogeita bi minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohiko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2025EKO URTARRILAREN 14KO BILKURAREN AKTA).
- 2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.
- 3.- OSTATUKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA.
- 4.- UEMAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA.
- 5.- EUSKARA IKASTEAGATIKO DIRULAGUNTZA.
- 6.- GOIMENI EKARPENA.
- 7.- GOIERRI FUNDAZIOARI EKARPENA.
- 8.- GOIERRIKO HITZARI EKARPENA.
- 9.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 10.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Iker Zubeldia Katarain jn. (EH Bildu).

#### **ZINEGOTZIAK**

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).  
Nagore Arrieta Aranza and. (EH Bildu).  
Denis Pérez Apaolaza jn. (EH Bildu).  
Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).  
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen).  
Alina Dumitru and. (Zegama Lantzen).  
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

#### **EZ ETORRITAKOAK**

Ainhoa Herrasti Areitio and. (EH Bildu). Ez etortzeko arrazoiak azaldu dira.

Idazkaria, Eztizen Agirresarobe Pineda.

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA (2025EKO URTARRILAREN 14KO BILKURAREN AKTA).**

Alkateak, 2025eko urtarrilaren 14ko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

### **2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.**

Alkatetza Ebazpen bidez onartutako honako faktura-zerrenden berri ematen da (2025eko otsailaren 5eko Ogasun Batzordean aztertu eta oniritzia jasotakoak), dagokion gastua onartuz eta ordainketa egitea bideratuz.

- 2024ko 22 zenbakidun fakturen erlazioa (urtarrila); guztira 30.960,01 euro.
- 2024ko 23 zenbakidun fakturen erlazioa (urtarrila 2); guztira 38.678,05 euro.
- 2025eko 1 zenbakidun fakturen erlazioa (urtarrila 3); guztira 16.632,74 euro.

### **3.- OSTATUKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA.**

Udalbatzarrak, 2025eko urtarrilaren 14ko ohiko bilkuran Zegamako Ostatuaren zerbitzua ustiatzeko kontratua esleitzeko baldintzen plegu administratibo eta teknikoak onartu zituen.

Kontratazio Mahaiak gutunazalen irekiera egin zuen joan den otsailaren 4an eta lizitatzaille bakarria agertu zen: Eduardo Cuesta Alonso y Otra CB. Lizitatzaillearen proposamenean, 300€ko kanona ordaintzea jasotzen da, hau da, lizitazio prezioaren zenbateko bera. Horrenbestez, Kontratazio Mahaiak Kontratazio organoa den Udalbatzarrari proposatzen dio Eduardo Cuesta Alonso y Otra CBri esleitzea Ostatuako zerbitzua emateko kontratua, 300€ko (BEZ kanpo) hilabeteroko kanona ezarriz.

Kontratazio arautzen duen administrazio-baldintza zehatzen pleguak 7. puntuan jasotzen duenari jarraiki, "Kontratuak bi urteko iraupena izango du eta epe hori urtez urte luzatu ahal izango da, bi aldeek horrela adierazi eta adosten badute. Luzapen eta guzti, gehienez sei urtekoa izango da."

Eskaera aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, EH Bildu taldetik etorritako lau zinegotzien eta Zegama Lantzen taldetik etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehena.- Kontratazio Mahaiaren proposamenarekin bat etorriz, Zegamako Ostatuaren zerbitzua ustiatzeko kontratua Eduardo Cuesta Alonso y Otra CB enpresari esleitzea, lizitatzaille bakarria izan denez eta pleguetan jasotako gutxieneko 300€ko (BEZ kanpo) kanona ordaintzea proposatu duenez.

Bigarrena.- Kontratatzailleak ordaindu beharreko hileroko zenbatekoa, 363,00 eurotan (BEZ barne) ezartzea, zenbateko hori, kontratua sinatzen den egunetik aplikatuko delarik.

Hirugarrena.- Lizitatzailleak ez du agiririk aurkeztu behar, dagoeneko aurkeztuta dituelako baldintza administratiboen pleguko 14.artikuluari jasotzen diren dokumentuak.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinarazten den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamabost laneguneko epea ematea Eduardo Cuesta Alonso y Otra CBri Ostatuko zerbitzua ustiatzeko kontratua formalizatzeko.

Bosgarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea, dagozkion errekursoak zein diren adieraziz.

#### **4.- UEMAKO ORDEZKOEN IZENDAPENA.**

Gaur egun, bi dira Udaleko ordezkariak UEMAn: Iker Zubeldia Katarain Alkatea (EH Bildu) eta Izaskun Igoa Arizcorreta zinegotzia (Zegama Lantzen). UEMatik proposatu dute bi ordezko izendatzea, euren ordezkari jardun ahal izateko hala behar denetan.

Aho batez onartzen da ordezkoak Ainhoa Herrasti (EH Bildu) eta Alina Dumitru (Zegama Lantzen) izatea.

#### **5.- EUSKARA IKASTEAGATIKO DIRULAGUNTZA.**

Alkateak bilkurakideei azaltzen die 2024ko abenduaren 23an euskara ikasteagatiko dirulaguntza eskatu zuela ikasle batek. C2 ikastaroa egiteagatik da eta matrikula 465€koa izanik, %50ari dagokion 232,50€ko dirulaguntza legokio.

Horrenbestez, adierazitako zehazpenekin, euskarako ikasleentzako dirulaguntza ordaintzearen aldeko irizpena ematen dute bilkurakideek.

#### **6.- GOIMENI EKARPENA.**

Goimen Elkartek aurkeztutako 2025 urterako elkarteko gastuetarako ekarpen proposamena 6.348,03€koa da.

Aho batez onartzen da proposatutako ekarpena egitearen aldeko irizpena ematea.

#### **7.- GOIERRI FUNDAZIOARI EKARPENA.**

Goierri Fundaziorako 2025 urterako ekarpen kuota proposamena 11.435€koa da.

Aho batez onartzen da proposatutako ekarpena egitearen aldeko irizpena ematea.

#### **8.- GOIERRIKO HITZARI EKARPENA.**

Goierriko Hitzak 2025 urteko proiektua gauzatu ahal izateko diru-laguntza eskaera burutu du. Ekarpena handitu daitekeen aztertzea eskatu du, edota KPIaren eguneraketa egiteko ahalegina. 2024an, 4.626,00€ko diru-laguntza ordaindu zitzaion. 2025eko urtarrileko KPI %3 dela kontuan hartuta, 4.764,78€koa izango litzateke diru-laguntza 2025eko KPIaren igoerarekin.

Aho batez onartzen da proposatutako ekarpena egitearen aldeko irizpena ematea.

#### **9.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

- 07/0125, urtarrilaren 13koa, Ostatuko lizitazioari hasiera ematekoa.
- 08/0125, urtarrilaren 14koa, Ostatuko lizitazioa burutzeko txostenak egiteari buruzkoa.
- 09/0125, urtarrilaren 16koa, bidea hormigonatzeari buruzkoa.
- 10/0125, urtarrilaren 17koa, 22 zenbakidun fakturen erlazioa (urtarrila) onartzeari buruzkoa.
- 11/0125, urtarrilaren 20koa, egurra ateratzeko baimen eskaerari buruzkoa.
- 12/0125, urtarrilaren 20koa, egurra ateratzeko baimen eskaerari buruzkoa.
- 13/0125, urtarrilaren 24koa, udal erroldan alta emateari buruzkoa.
- 14/0125, urtarrilaren 24koa, obra txikiko baimena emateari buruzkoa.
- 15/0125, urtarrilaren 24koa, obra txikiko baimena emateari buruzkoa.
- 16/0125, urtarrilaren 27koa, etxebizitza aurrefabrikatuaren bideragarritasunari buruzkoa.
- 17/0125, urtarrilaren 29koa, 23 eta 1 zenbakidun fakturen erlazioak (urtarrila 2 eta 3) onartzeari buruzkoa.

## 10.- GALDE ERANTZUNAK.

UEMAko "Zegaman euskaraz bizi nahi gara" kartelak iritsita ote dauden galdetzen du Izaskun Igoak. Biltegian daudela uste da.

Agendei dagokionez, Izaskun Igoak azaltzen du logorik gabekoen eskaera zegoela eginda eta ustez, horiek ez zirela ordaindu behar.

UEMAk antolatuta, Irabazi Arteren lehen kapituluaren aurrestreinaldia egingo da igandean Gaztelekuan. Sare sozialetan zabalduko da.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak eta hamabi minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasozazteko, nik egiazaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

### Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2023ko .....k .....

**O.E. / VºBº**  
**ALKATEAK/ EL ALCALDE**

### Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2023.

**IDAZKARIAK/ LA SECRETARIA**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Udalbatzarreko akta

**CSV/EKS:**

SINA67aa42c9-170d-44c1-a2ff-2ae6d8b572aa